




hartzaro bakoitzarentzat



2023KO FORU
HAUTESKUNDEAK

HAUTESKUNDE HAUETAN, HAURRAK DIRA GARAILE

UNICEF Nafarroako Batzordearen proposamenak



HAUTESKUNDE HAUETAN, HAURRAK DIRA GARAILE NAFARROAN

Nazio Batuen Batzar Nagusiak UNICEFi esleitu zion haur eta nerabeen eskubideen babesa sustatzeko, haien oinarritzko beharrei erantzuten laguntzeko eta haien potentziala erabat garatzeko eskaintzen zaizkien aukerak areagotzeko agindua.

Misio horrek, Espainian eta Nafarroan, honako betebeharrak dauka, besteak beste: erakunde publikoek laguntzea haur eta nerabeei buruzko Konbentzioan aitortzen zaizkien eskubide guztiak baliatu ditzaketela bermatzeko behar diren neurri guztiak hartzen.

Haurren eta pobreziaren eta desberdintasunaren artean (diru-sarrereri, bizitzako baldintza materialei, osasunari, etxebizitzari edo hezkuntzari dagokienez) gero eta lotura handiagoa dago, eta gero eta agerriago dago haien aurkako indarkeria, gure mugekin barnean eta haizetatik kanpo, eta, hori dela eta, haurtzaroak nolabaiteko presentzia hartu du azken urteotan agenda publikoan eta politikoan. Hala ere, presentzia hori oraindik ez da nahikoa, haurtzaroaren ongizatea neurtzen duten adierazleak kontuan hartuta. Hori dela eta, oraindik lan egin behar da haurtzaroak behar duen lehentasuna izateko agenda politikoan, bai Estatu-mailan bai autonomia-mailan.

Zergatik egon behar dute eta kontuan izan behar dira haur eta nerabeak hauteskunde-programetan?

1. Nafarroako herritarren %18,15¹ direrako (18 urtetik beherako 119.705 biztanle).

2. Izan ere, haurrak kontuan izateak autonomia-erkidegoaren epe ertaineko edo luzeko ikuspegia erakusten du, eta zenbait ekimen globalekin lotzen da, hala nola Garapen Jasangarirako 2030eko Agendarekin.

3. Izan ere, haurtzaroan inbertitzea ekonomia-aldetik aukera adimentsua da, eta onurak dakarzikie herritar guztiei: garapen ekonomikoa eta soziala sustatzen ditu produktibitatea, hazkuntza ekonomikoa eta gizarte-ko hesioko mailak handitzean.

4. Izan ere, bereziki kalteberak dira pobreziaren, indarkeriaren eta esploatazioaren aurrean.

5. Izan ere, herritar diren aldetik daukaten eginkizun bikoitzean, orain eta etorkizunean, beharrezkoak diren politika eta inbertsioak sasoiz ez garatzeak haien eskubideak kalte ditzake, eta kostu ekonomiko eta sozial handia ekarriko du.

6. Izan ere, nahiz eta botorik ematen ez duten, eskubideen titular dira, eta haiek betetzeak legeak eta politika publikoak hobetzeko beharra dakar.

7. Izan ere, entzun ditzaten eta haiengan eragina duten gai guztietan parte hartzeko eskubidea dute. Parte-hartzea Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren oinarritzko jokabide bat da.

8. Belaunaldien arteko elkartasunagatik: printzipio horretan oinarritzen diren zerbitzuak eta gizarte-babesaren sistema publikoek haurtzaroari eta haurrak dituzten familiei ere begiratu behar dietelako, justizia eta jasangarritasun kontuengatik.

9. Izan ere, konpromisoa hartu dugu zenbait nazioarteko tresnetan haien eskubide guztiak bete daitezela bermatzeko.

Hauteskunde-aldiak une egokia dira atzera begira eta lorpenak balioesteko, baina, bereziki, betetzeko dauden erronkak eta konpromisoak balioesteko; horretarako, haur guztien eskubideak babestu, sustatu eta eraginkor bilakatuko dituzten neurriak identifikatu behar dira. Honako hau da dokumentu honen helburua: **UNICEF Espainiako Batzordearen 2023-2026 legegintzaldirako proposamenak jasotzea eta, horretarako, haurrak Nafarroan indar politikoen programetan protagonista izatea.**

Dokumentu honetan jasotzen ditugun proposamenek 3 zutabe dituzte: **eskubideen ikuspegia, haurtzaroan inbertitzea eta zuzentasuna**, eta UNICEFek eta haren aliatuek azken urteotan Espainiako eta Nafarroako haurtzaroaren egoeraren errealitatea ezagutzeko sustatu dituzten hainbat eta hainbat analisi eta ikerketa dituzte oinarri.

Haurtzaroari zuzendutako politikek aurreko planen ebaluazio bat eta haurtzaroaren egoeraren azterlan diagnostiko zehatz bat izan behar dute abiapuntu. Hala, autonomia-erkidegoan haurrek bizi duten benetako egoera ezagutu eta ezagutzera eman ahal da; zer egin, norentzat, non eta zer helbururekin identifikatu ahal da, eta, ondorioz, politika egokiagoak diseinatzen lagunduko du, haien ongizatea eta eskubideak bermatzera bideratuak eta eraginkorrak. Plangintza horrekin batera, barne hartzen dituen neurriei heltzeko beharrezkoa den aurrekontua beharko da, bai eta haren benetako inpaktua eta betearazpena neurtu ahal izateko segimendu-adierazleei heltzeko behar dena ere.

Koordinazioa ezin da estrategia eta planen osagarri bat edo bigarren mailako ekintza bat izan; berez, haurtzaroaren eskubideak babesteko estrategia eraginkorrenetako bat da, Haurren Eskubideei buruzko Batzordeko 5. zenbakiko Behaketa Orokorrak adierazten duenez.

Era berean, aurkeztzen diren proposamenen bidez, autonomia-erkidegoetan haur eta nerabe guztiek dauzkaten eskubide guztiak (hezkuntza, osasuna,

biziraupena, babesa, etab.) **2030erako Garapen Jasangarriaren Agendan** xedatutakoaren esparruan balia ditzaten behar diren oinarriak ezar daitezten lortu nahi da. Hura nazioarteko erkidegoak pertsona ororentzat lortu behar du, modu jasangarrian eta zuzenean. Garapen jasangarriko helburuek haurtzaroaren eskubideak sustatzen dituzte eta haur guztien eskubideak eta ongizatea ahalik eta gehien babesten direla ziurtatzeko aukera bat dakarte; arreta pobrezia, desparekotasun eta jasanezintasunaren arazo nagusietan jartzen da. Helburua da milioika haurren bizitzak eraldatzea, gure autonomia-erkidegoan eta mundu osoan, inor atzean utzi gabe.

Eta hori guztia, **haur eta nerabeen benetako parte-hartzea** zeharkako ardatza izanik. Haurrek informazioa jasotzeko, haien izu eta zalantzak adierazteko eta haiengan eragina duten gaitan erabakiak hartzean parte hartzeko eskubidea dute. Nahiko ikuspegi argia dute gobernuek nola gastatu beharko luketen dirua haien eskubideak errealitate bilatzeko. Haiekin eginiko kontsultek eta proiektuek, bestalde, agerian uzten dute haien iritzia eman nahi eta ahal dituztela, eta gobernu autonomikoaren erantzukizuna dela haiei kontsulta egiteko mekanismoak antolatzea. Funtsezkoa da haur eta nerabeentzat parte hartzeko benetako espazio eta mekanismoak sustatzea, ez soilik eskubideen titular diren aldetik, baita gizarte- eta politika-eraldaketarako funtsezko eragile diren aldetik ere. Hala, kontuan hartzen dituztela eta haien ikuspegiarekin ekarpena egin dezaketen herritar aktiboak direla sentituko dute. Erabaki, neurri eta ekintza politiko guztiek honako konpromiso honi

eutsi behar diote: parte-hartzea gardena eta lagunkoia izatea, kontuak ematea, egon daitezkeen arriskuekiko sentikorra izatea eta haur eta nerabeen protagonismoarekin.

Ildo horretan, dokumentu honetan haur eta nerabeen talde bati UNICEF Espainiako Batzordearen ardatz estrategikoen inguruan eginiko

kontsulta-prozesu baten ondoriozko hausnarketa eta proposamen nagusiak jasotzen dira.

5 ardatz estrategikorekin lotura duten 10 proposamen dakartzagu:

haurrak eta nerabeak munduan zaindu eta babestea; Espainian haurrak babestuak izatea; haur-pobrezia; osasun mentala, eta haurren eskubideak eremu digitalean.

6 KONPROMISO HAURREKIN

Haurrek gure mugen barruan eta haietatik kanpo jasaten duten pobrezia, despaketotasun edo indarkeria dela eta, haurrek protagonista eta partaide izan behar dute Estatu eta foru-mailako agenda politikoan.



Pobreziaren aurka borrokatzea



Garapenerako lankidetzaz sendotzea



Osasun mentala zaintzea



Haurren eskubideak bermatzea ingurune digitalean



Haurrak babestea



Haurretan inbertitzea

HAURRAK ETA NERABEAK MUTURREKO ETA KALTEBERATASUN HANDIKO EGOERETAN MUNDUAN



COVID-19ak agerian utzi du gure kalteberatasuna eta interdependentzia. Pandemia gelditzeko mundu-mailako gaitasuna osasun-sistema ahulenek eta baliabide gutxien dutenek erantzuteko duten gaitasunaren araberakoa izango da.

COVID-19ak ez ditu, inolaz ere, osasun-ondorioak soilik eragin. Pandemia gelditzeko neurriak krisi sozioekonomiko oso handia eragiten ari dira, eta hura bereziki kaltegarria izango da sistema

ahulenak eta egoera kalteberenetan dauden populazioak dituzten herrialdeetan. Gainera, krisi hori, aurretik ere bereziki haurtzaroan kaltea eragiten ari ziren beste krisi batzuekin –hala nola klimatikoa edo gatazkak– lotuta, arrisku larrian jartzen ari da azken hamarkadotan izandako lorpenak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorren bidez eginiko Garapenerako Lankidetzaren Programaren analisiak dakarrenez, 2022an garapenerako laguntza ofiziala % 0,38-ra iritsi zen.

PROPOSAMENAK

- 1** Lankidetzako Gida Planetan haurtzaroaren estrategia bat sartzea, Espainiako lankidetzarekin eta Agenda 2030ekin koherentzian, eta multilateralismoarekin eta Nazio Batuen esparruarekin konpromisoari eustea, aurrez aurre ditugun eta lankidetzaren deszentralizatuak erantzuten lagundu beharreko erronka globalei behar bezala heltzeko.
- 2** Aurrekontuaren % 0,7 garapenerako lankidetzara bideratzeko nazioarteko konpromisoarekin betetzea eta, horretarako, haurtzarora bideratzen den ehunekoaren segimendu egokia egitea eta herritartasun globalerako hezkuntza baliabide eta tresnen bidez bultzatzea.



HAUR ETA NERABEEN ZAINZA ETA BABESA, ARRETA BEREZIA JARRIZ MUGIMENDUAN DAUDEN HAURRETAN



Haur eta nerabe guztiak daude Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren babespean, eta guztiek dute babestuta egoteko eskubidea, jaiolekua edo egungo bizilekua edozein dela ere, eta erakundeek haien babesa bermatzeko betebeharra dute, babesgabeziarako arrisku-egoerak saihesteko, detektatzeko eta konpontzeko jarduketan bidez. Nolanahi ere, neurri horiekin batera, aldi berean, administrazioek familia biologikoei laguntza integrala eta diziplina anitzekoa eman behar diete, haiek seme edo alaba babesteko gaitasuna berreskuratu ahal izateko.

Bidaiderik gabeko haur migratzaileak kolektibo bereziki kaltebera dira babes-eremu horren barruan. Babes-sisteman integratu behar dira, baina, batzue-

tan, laguntza berezia behar dute; izan ere, deserrotzea jasaten dute, abusuen eta esplotazioaren biktima izateko arriskua dute eta haien herrialdean edo ibilbidean egin bitartean indarkeriazko egoerak bizi ahal izan dituzte.

2021ean, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren Aurka Erabat Babesteari buruzko Lege Organikoa onartu zen, indarkeria mota guztien aurrean haur eta nerabeen babesa eta prebentzioa bereziki ardatz dituzten politika publikoak abian jartzeko araudi- eta erakunde-esparrua. Helburua: haurrentzako espazio seguruak eta babesleak eraikitzea, guztion parte-hartzea eta konpromisoa izango dutenak. Lege horrek helburua betetzeko, erakunde publikoek funtsezko zerbitzu batzuk jarri behar dituzte abian.

PROPOSAMENAK

3 Babes-sistema sendotzeko behar diren neurriak hartzea eta, horretarako, dauden beharrei aurre egiteko erantzun egokia garatzea, familia-harrera sustatzea, behar diren mekanismo eta baliabideak ezartzea eta koordinazioa hobetzea, tutoretzapeko haur guztiek dauzkaten eskubideak balia ditzaten, parte-hartzea barne. Hori guztia, integrazioa eta helduarorako trantsizioa xede izanik.

4 Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren Aurka Erabat Babesteari buruzko Lege Organikoa ezartzeko ekintza batzuk garatzea, hala nola araudia garatzea, protokoloak diseinatzea, organo eta figurak sortzea –esaterako, ongizaterako eta babeserako koordinatzailea eta babeserako ordezkaria– eta hurrekin harremanetan dauden zenbait zerbitzutako langileei prestakuntza ematea, besteak beste, segurtasun-kidego eta -indarretako kideei, botere judizialekoei, osasun-zerbitzuetakoei, gizarte zerbitzuetakoei, hezkuntza-, kirol- eta aisia-eremukoei eta erkidegoari, oro har.

Bidaiderik gabeko haur migratzaileak babesteko neurri bereziak

- Desbideratzeko Mekanismo Nazionalaren funtzionamenduan parte hartzea eta sustatzea, bidaiderik gabeko haur guztien babes-maila egokia bermatzeko.
- Haur migratzaileei erantzun eraginkorra, koordinatua eta erantzukizun partekatuetan oinarritzen dena bermatzea, migrazio-krisien testuinguruetan, eta, horretarako migrazio-kontingentzia humanitarioak kudeatzeko eredu bat jartzea abian, haurren eskubideen ikuspegiarekin. Eredu horrek sektore pribatua inplikaraziko du, eta erantzun egokia eta kalitatekoa emateko behar diren baliabideak bermatuko ditu eta laguntza nahikoa eta egokia emango du harik eta emantzipatu arte.
- Arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako plan bat garatzea.

HAUR-POBREZIA ETA GIZARTE-BABESA



Haur eta nerabeek erronka ugari dituzte aurrez aurre, hala nola haur-pobrezia eta desberdintasunak areagotu direla, hezkuntza-arrakala larriagotu dela, haien eta

familien osasun fisikorako eta mentalerako mehatxu bat, krisi klimatikoaren inpaktua, COVID-19aren ondorioak eta Ukrainako gerraren ondoriozko egoera.

Haurren bilakaera guztion bilakaera da. Haurrentzako mundu hobea birpentsatzeko unea da eta, horretarako, gizarte erresilienteagoa ziurtatuko duten eta gure autonomia-erkidegoko haurren eskubideak babestu eta bermatuko dituzten neurrien erdigunean jartzeko unea.

18 urtetik beherako pertsonen % 25,2², alegia, 119.705 haurretatik 30.165 (Iturria: INE, 2021eko³ Bizi Baldintzen Inkesta, atalase autonomikoaren arabera) pobrezia-egoeran edo gizarte-bazterketako egoeran daude (AROE tasa). Datu horrek 2020ko emaitzen aldean hobera egin badu ere, haur bakoitzak –diru-sarreraren terminoetan, atzean geratzen ari dena– arrisku handiagoa du beste eremu batzuetan ere atzean geratzeko, besteak beste, osasunean edo hezkuntzan. Haurren arteko desberdintasun horrek haien bizitzan eta garapenean du eragina, baina Europako gizarte osoaren ongizatea ere estatusunean jartzen du, epe ertain eta luzera.

PROPOSAMENAK

- 5** Nafarroan haurren politika publikoen egonkortasuna eta kalitatea bermatzea eta, horretarako, haurrei eta haien familiei bideratutako baliabideak lehenestea. Aurrekontuen legean haurrei dagokien aurrekontu-analisia eta haurrengan duen inpaktuaren txostena abiapuntu hartzea eta, horretarako, haurrengan eragin zuzena eta zeharkakoa duten programa eta partidak eta haien helburuak identifikatzea eta finantzatutako ekintzen inpaktua eta baliabideak nahikoa diren balioestea. Inbertsio nahikoa eta egokia bermatu behar da eta, horretarako, aldakuntza politiko eta ekonomikoen aurrean blindatu, efizientzia, eraginkortasun, zuzentasun, gardentasun eta irisgarritasunaren irizpideei jarraikiz.
- 6** Haur kalteberak funtsezko zerbitzuetara sarbidea dutela bermatzea (hezkuntzaren, nutrizioaren, osasunaren eta etxebizitzaren arloetan), eta haur-pobreziaren aurka borrokatzea; hala, Nafarroan Europako Haur Bermea ezartzen dela ziurtatzea eta, horretarako, plan operatibo autonomikoaren garapena eta segimendua egitea, toki-eremuarekin koordinatuta.

2. INEk aldaketa bat sartu du AROPE metodologian, gabetze materialari eta enplegu-maila baxuari dagokiena. Datu hori metodologia berriarekin kalkulatu da. Eta horretarako 12.572,9€-ko muga autonomikoan oinarritu gara (estatuko muga 9.535,2€).

3. INEk emandako 2020ko eta 2021eko AROPE datuak egiaztatu dira; biak metodologia berarekin kalkulatu dira, metodologia zaharrarekin alegia (2020 ehuneko %27,9, eta 2021 ehuneko %24,0).

HAUR ETA NERABEEN OSASUN MENTALA



Osasun mentalaren ahalik eta maila go-renerako eskubidea osasunerako giza eskubidearen funtsezko zati bat da, eta hala aitortzen du Haurren Eskubideei bu-

ruzko Konbentzioak. Nazioarteko tratatu horren ondoriozko betebeharrak, prebentzio- eta tratamendu-neurriez gainera, osasunaren eta ongizatearen erabakigarri psikologiko eta sozialen hobekuntza ere barne hartzen dute.

Nafarroan, azken 2021eko Gizarte eta Bizi Baldintzen Inkestak, pandemiaren ondoren, 15 eta 29 urte bitartekoen artean "ongizate orokor baxua" dutelako sentimendua dutenen ehunekoa handitu dela dakar, 2017an % 13,3k zeukaten sentimendu hori

eta, 2021ean, % 26,8k. Eta, adin-tarte berean, gora egin du, era berean, osasun mentaleko arreta behar dutela uste duten pertsonen ehunekoa (2017an % 8,1 eta 2021ean % 10,7).

Maila nazionalean dauden datuek erakusten dute gora egin duela osasun mentalen kontsultetan (psikiatria eta psikologia klinikoa) eta esku-hartze psikologiko eta sozialetako kontsultetan artatutako kasuen kopuruak. Bizi dugun egoerak erronka oso garrantzitsuak eragiten ditu osasun-arloan eta, aldi berean, aukera bat izan daiteke Nafarroan haurren osasun mentalaren sistema behin betiko sendotzeko, bai eta etorkizuneko larrialdien aurrean geure burua prestatzeko ere.

PROPOSAMENAK

7 Haur eta nerabeen osasun mentaleko ekintza-plan autonomiko berezi bat garatzea, hala badagokio, Osasun Planean edo Haurren Osasun Planean eta 2022-2026 aldirako Osasun Sistema Nazionalaren Osasun Mentaleko Estrategian sartzen dena; estrategia Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluan onetsi zen, 2021eko abenduan. Plan horrek prebentzioko, detekzio goiztiarreko, sustapeneko eta arretako zerbitzuak barne hartu behar ditu, sektore ikuspegi multisektorialetik, komunitariotik eta psikosozialetik, eta lotutako jokabide eta arazoak prebenitzeko eta eteteko neurri espezifikoak jasoko ditu. Arazo horiek honako hauek izango dira, besteak beste: tratu txarrak (zabarkeria eta indarkeria), sexu-abusua, bullyinga, ziberjazarpena, sextortsioa, suizidioa, sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioa, xenofobia, alkohol-kontsumoa, substantzia toxiko, teknologiko eta apustuekiko adikzioak eta beste arrisku-jokabide batzuk.

8 Lehen mailako arretaren eginkizuna eta profesionalen hornidura (familia-medikuak, pediatriak, psikologo klinikoak edo sanitarioak) sendotzea eta, horretarako, haiek haur eta nerabeei hezkuntza-eremuan laguntza psikosoziala ematen dieten gainerako profesionalekin duten koordinazioa bermatzea (bereziki garrantzitsua da ongizaterako eta babeserako koordinatzailearen figurarekin antolatzea). Era berean, babes-sistema, gazte-justiziaren sistema, errefuxiatuak edo asilo-eskatzaileak hartzeko sistema, desgaitasuna duten haurrentzako baliabideak, gizarte-zerbitzuak eta abar ere sendotzea.

TEKNOLOGIA ETA HAURREN ESKUBIDEAK EREMU DIGITALEAN



Haur eta nerabeen eskubideak ingurune digitalean ere errespetatu, babestu eta bete behar dira.

Harremanetarako, Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologiek (TRIC) abantailak eta aukerak ematen dizkiete nerabeei garatzeko eta ikasteko, eta, gainera, ekarpen garrantzitsua dira maila sozialean eta emozionalean. Hala ere, teknologia berriek arrisku handiak ere badakartzate, hala nola ziberjazarpena, sextinga edo sextortsioa. UNICEF⁴ en 2021eko⁵ txostenaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko nerabeen % 30,1ek Internet eta sare sozialen inguruko erabilera problematikoa egiten du (Nafarroan 10 nerabetik 1ek sexu-proposamenen bat jaso du Internetetik

helduren baten aldetik, eta 5 nerabetik 1 ziberjazarpenaren biktima izan liteke). Gainera, ingurune horrek haien bizitzan duen garrantzia nabarmendu behar da; izan ere, 2 nerabetik 1ek bideojokoak erabitzen ditu aisiarako eta entretenimendurako kanal nagusi gisa, eta, gainera, haien adinerako ez diren jokoetara jokatu ohi du.

Haur eta nerabeek Internet segurtasunez nabigatu eta ikas dezaten, lotutako arriskuak kudeatzeko trebetasun eta tresnak izan ditzaten eta Harremanetarako, Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologien erabilera osasungarria, orekatua eta errespetuzkoa eginez haz daitezen sustatzeko, UNICEFek honako hau proposatzen du:

PROPOSAMENAK

- 9** Araudi, protokolo, programa, neurri eta babes-mekanismoak sortu edo eguneratzea, Harremanetarako, Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologien erabileraren ondorioz haurren eskubideak urratzeko modu berrien aurrean, gero eta nabariagoak baitira.
- 10** Hezkuntza-eremuan gaitasun digitalak garatzeko esku-hartzeak areagotzea, familiei eta nerabeei beraiei tresnak eta behar duten laguntza eskaintzea, industria teknologia eta hark ongizate digitala sustatzeko duten funtsezko rola ahantzi gabe.

4. Nafarroako Foru Komunitatetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 12 ikastetxetako 2.865 nerabek parte hartu zuten; ikastetxe horiek titulu-lartasun publikokoak, pribatukoak eta itundukoak izan ziren.

5. UNICEF, 2021. Teknologia nerabeetan duen inpaktua: harremanak, arriskuak eta aukerak.



ERANTZUN CHECK LIST HONI, HAUR ETA NERABEAK ZURE HAUTESKUNDE-PROGRAMAN KONTUAN HARTUAK IZAN DIREN EGIAZTATZEKO

HAURREN IKUSGAITASUNA

■ Haurrek maila esanguratsua dute hauteskunde-programan? Bereziki aipatzen dira haurrak, haurrak eta haien eskubideak programaren sarreran eta/edo laburpen exekutiboan?

■ Eskaintzen zaie haurrei programaren atal nagusi bat? Programaren aurkibidean jasotzen dira haurrei bideratutako proposamenak, gutxienez sozietateko beste talde edo sektore zabal batzuetan eragina duten beste politika batzuen maila berean –besteak beste, genero-politikak edo adinekoen politikak—?

■ Ikusgai daude haurrak haiengan eragina duten politiketako gizabanako gisa? (Hezkuntza, gizarte-babesa, babes juridikoa). Haur eta nerabe gisa ageri dira, eta seme-alaba, ikasle, erabiltzaile, adingabe, onuradun eta abar gisa?

■ Ageri dira beste politika orokor/zeharkako batzuetan (garapenerako lankidetzak, migrazioak, enplegua, etab.)? Kontuan hartzen dira haientzako bereziki ez diren baina haien bizitzan, familietan eta ingurunean eragina duten politiketan neurriak diseinatzeko orduan?

ESKUBIDEEN IKUSPEGIA ETA POLITIKEN ESPARRUA

■ Aurreikusten al dira haurrak hauteskunde-programan Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren, 2030erako Garapen Jasangarriaren Agendaren eta nazio- eta nazioarte-mailako oinarritzako beste erreferentzia batzuen esparruan? Aurreikusten al dituzte programek honako akordio hauek, besteak beste: Haurren Aldeko Estatuko Itunerako Legez Besteko Proposamena, Europako Batzordearen "Haurrengan Inbertitzea" Gomendioa (2013),

Europar Batasuneko Zutabe Soziala eta migrazioei buruzko Global Compact ekimena?

■ Esanguratsuak al dira haurren ongizaterako proposatutako neurriak? Neurrietan, haurretatik eta haur eta nerabeen ongizatean eta eskubideetan duten ondorioetik heltzen zaio ikuspenari?

■ Ba al dute hala behar duten neurriek beharrezkoa den gastu/inbertsioaren zenbatespenik? Ba al dago neurriak ezartzeko behar den inbertsio publikoari eta haiek duten inpaktuari eta lortu nahi diren xedeei buruzko estimazio eta konpromisorik?

HAURREN PARTE-HARTZEA

■ Parte hartu dute zuzenean haurrek? Edo, gutxienez, kontuan izan dira beste iturri batzuen bidez (haurren erakundeak, inkestak, haur-topaketak, haurren udal-kontseiluak, etab.) batu diren haurren iritziak?

■ Ba al dago haurrei egokitutako programaren bertsiorik edo haurren neurri berezien bertsiorik? Ulertuko lituzkete neurriak eta haiengan dituzten ondorioak?

ZUZENTASUNA

■ Arreta berezia jartzen da haur kalteberagoetan? Ba al dago haientzako neurri berezirik? Zein izango litzateke proposatutako neurriek haur-pobrezian, desgaitasuna duten haurrengan, etorkinengan, babes-sistemako edo judizialeko haurrengan edo beste egoera edo kolektibo kaltebera batzuegan izango luketen ondorioa?

BAIEZKOA ERANTZUN DIEZU 10 GALDERA HORIEI? BAI?

ORDUAN, HAUTESKUNDE-PROGRAMA HAU HAURRENTZAKO PROGRAMA BIKAINA DA, 10EKOA

